



## NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA

# EHKOlektiboa, urratsez urrats agroekologiarantz

**A**groekologiak elikadura-sistema iraunkorra gartztea du helburu nagusi. Tokikotasunetik eta ekoizpen eredu ekologikotik abiatuta, baserriarren eta herritarren artean bidezko har-tu-emanak bermatzea da bere xedea. Alegia, nekazariak beraien nekeari (hau da: luraren eta ingurumenaren zaintza, paisaiaren kudeaketa, elikagai osasun-tsuen ekoizpena...) dagokion saria jasotzea; eta herritarrak ordaintzen duenari dagokion kalitatea eta onurak eskurtzea. Finean, mundu osoko bazterrak kutsatu, jendarte gaixotu, gatazka soziazial larriak sortu eta elikaduraren inguruan espekulazioa bultzatu duen nekazaritza globalizatu-industrialari aurre egiten dio agroekologiak, alternatiba argia eta iraunkorra eskainiz.

Agroekologiaren aldeko taldeak mundu osoan zehar ugartuz doaz etengabe. Ekimen horietako bat dugu EHKOlektiboa, Euskal Herriko zazpi lurraldeetako nekazari ekologikoak batzeaz gain, herritar soilak ere batzen dituen elkarte.

### ZAZPI EUSKAL HERRIAK BAT EGINDA

Iragan otsailaren 17an bere XI. Topaketak ospatu zituen EHKOk Uztaritzen (Lapurdi). Lurralde guztietatik bertaratu ziren 62 norbanako, euskara hutsean kolektiboak 2017an zehar izandako ibilbideaz jarduteko (apur batzuek gazte-larara edota frantsesera bat-bateko itzulpena behar izan bazuten ere), eta 2018rako erronkak finkatzeko. Hala, lapurteraz adierazi zen norbanakoek zertxobait gehiago eman beharko lioketela kolektiboari, EHKOren garapena azkartuko bada; bizkaieraz adierazi zen kide berriak batzeko beharra, kolektiboaren autonomia hobetu aldera. Gipuzkeraz ozenki entzun ahal izan zen lantalde sektorialetan egiten diren topaketak oso garrantzitsuak eta motibagarriak direla.



ENEK

Herritar-kontsumitzaile gehiago kolektibora batzearen garrantzia aho batez aipatu zuten bi kidek, nafarreraz eta Arabako euskaraz. Bukaeran, xibereraz adierazi zen tankera honetako bilkurak sarriago egitearen beharra. Euskal Herriaren aniztasuna elikadura osasuntsua, anitza eta burujabea aldarrikatzen duen kolektibo batean bilduta.

Euskal Herrian ekoizpen agroekologikoak nolakoa izan beharko lukeen definitzeko sortu zuten EHKOlektiboa baserriar ekologiko euskaldunek, 2009an. Bidean, nekazaritza ekologikoaren alde lan egiten duten elkarteak ere batu dira (Iparraldeko Biharko Lurraren Elkarte, Gipuzkoako Biolur, Bizkaiko Lurreko,

Arabako Bionekazaritza), baita gure lurraldean nekazaritza ekologikoaren kontrola eta sustapena egiteko ardura duten kontseiluak ere (Euskal Autonomia Erkidegoko ENEK eta Nafarroako NN-PEK-CPAEN). Hala, ia 10 urteko lanaren ondotik, ezarrita daude ekoizpen-mota bakoitzarentzat bete beharreko baldintza agroekologikoak. Garatuta dago baldintza horiek betetzen dituzten etxaldeen identifikatzailea ere. Identifikatzaile hori ziurtapen ekologikoa duen edozein etxaldek eska dezake. EHKOk bost kidez osatutako komisiok ebazten du agroekologiaren baldintzak betetzen diren, eta, ondorioz, etxaldeak EHKOlektiboaren identifikatzaile merezi duen ala

ez. Herritarrek herritarrei emandako bermea, parte hartzailea eta garden.

Momentuz, 61 etxaldek osatzen dute EHKO etxalde sarea. 2018rako zenbaki hori handitzea da erronka, baita baserriarren arteko harremanetan eta elkarlanean sakontzea eta herritar gehiago batzea ere. Agroekologia ez baitute baserriarrek bakarrik eraikitzen, gizarte osoak baizik.

Informazio gehiago: [www.ehkolektiboa.org](http://www.ehkolektiboa.org).